

EUSKALTZAINDIA INTERNET-EN

2003-XI-18

*Iñaki Kareaga,
Informatika eta
Telekomunikazio teknikaria*

*Amaia Okariz,
Prensa eta
Komunikazio arduraduna*

2000. urteaz geroztik, sarean da Euskaltzaindia. Handik hona, Internet-ek eskaintzen dituen aukerak baliatuta, geroz eta informazio eta zerbitzu gehiago aurki daiteke www.euskaltzaindia.net helbidean. Horretaz jabetuta, gainera, 2002ko abenduan ahalegin berezia egin zen webgunea handituz zihoazen beharretara egokitzeko, diseinu eroso eta edukien egitura eramangarriagoarekin; egitasmoa, Euskaltzaindiaren Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuak berak zuzendu zuen eta diseinu grafikoaz, berriz, SPI nafar enpresa arduratu zen.

Internet, erakunde batek gizarteari irekitzen duen beste leiho bat da. Eskaintzen duen malgutasun eta bat-batekotasunagatik, azkenaldi honetan indar handia hartu duen eremua da, batik bat benetan baliagarria den informazioa eta zerbitzuak emateko duten webguneen kasuan.

Horren guztiaren harian, Euskaltzaindiak sarean egoteko erronka hartu zuenean, bertan bere presentzia instituzionala bermatzeaz gain, benetako tresna interaktiboa eskuragarri jartzea zuen xede nagusi. Hau da, gutxienez, baldintza hauek beteko lituzkeena:


- Erakundearen izaera eta jardueraren berri eman.
- Dokumentazio-eremu aberatsa sortzea, denen eskura jartzeko, era sistematikoan.
- Dokumentazio eta informazio guztia eguneratu.
- Interneten erabiltzaileekiko harreman-bideak ireki

Laburbilduz, tresna benetan eraginkor eta erabilgarria sortzea izan da helburu nagusia sarean izan garen urteotan eta horretara bildu dira ahalegin guztiak. Diseinu mailan, egitura erabilerrazago baten bila ibili gara. Edukiei da-


gokienez, Euskaltzaindiaren web gunean kontsulta daitekeen dokumentazioa geroz eta zabalagoa da.

Urratsok emanda, komenigarria litzateke jakitea apostuak zer nolako harrera izan duen hartzaileen artean, benetan erabiltzen den eremua ote den honako hau. 2003. urteko datuok hainbat modutara interpreta daitezke baina, ondorengo irudietan agertzen diren estatistiketatik, honako ondorio hauek nabarmendu nahi genituzke.


Kontsulta-kopurua (1) zerbitzuka, 2003an



2003ko hileroko bisitak (2)



Azken urteetako bisita-kopuruaren bilakaera



(1) Kontsulta: bisita bat egiterakoan, atal batean edo gehiagotan (Azkue Biblioteka, Jagonet, Onomastika, e.a.) egiten den kontsulta.

(2) Bisita: webgunean sartzen den aldi bakoitza.

1. Urtean zehar bildutako bisita-estimazioa begiratuta, gorakada nabarmena antzematen da aurreko urteekin alderatuz gero: 2001ean 53.914 izan ziren, 2002an 67.824 eta 2003an, berriz, 144.059.

2. Hileroko datuei begiratuta, lehen begiradan antzeman daiteke udazketik aurrera izan den gorakada nabarmena, urrian eta azaroan 20.000 bisita izan direlarik. Hilerik apalenak, berriz, udari dagozkionak izan dira.

3. Internet-eko bisitariak gehien erabili dituzten atalak, alde handiz gainera, Hiztegi Batuari eta Onomastikari dagozkionak dira. Azken horren kasuan, irailetik aurrera izandako gorakada handia oso adierazgarria da.

4. Jagonet zerbitzua da interaktibitatearen tresnari etekinik handiena ateratzen diona, zerbitzu horren bitartez, euskara langai dutenen kontsultak eta ekarpenak jaso baitaitezke, haiekiko komunikazio zuzena bermatuz.

Datuak aztertuta, eta garaiaren arabera izan diren gorabeherak ikusita, argi dago erabiltzaileen portaera bat datorrela Euskaltzaindiaren nortasunarekin: webgune akademikoa izaki, ikasturtean zehar erabiltzen den espazioa da.

Halaber, emaitza absolutuak hartuta euskararen ikerle, ikasle eta adituek ontzat eman dute Euskaltzaindira urreratzeko modu hau.